

# AUKERA BERDINTASUNA IRAKASKUNTZAN

Martxoak 8 emakumeen nazioarteko eguna, gure aldarrikapenak, borrokak, helburuak eta ametsak ... gogora arazteko eta protagonistak izateko eguna.

Sexu-generoaren arabera Aukera Berdintasuna bermatzea da egungo jendarteak duen erronka handienetako bat eta Hezkuntza Sistemari eragitea ezinbestekoa da helburu hori lortze aldera pausoak emateko. Hezkuntza Sistema baita ideologia, jarrerak, estereotipo, aurriritziak igortzeko bitarteko esanguratsuetako bat, hauen artean balore patriarkalak eta sexistak direlarik sustraituenetakoak.

Era berean, jendarteak duen tresna aldatzaile eta zuzentzaile nagusienetarikoa da. Egoera hau aldatzea denon zeregina bada ere, guraso, herritar, sindikatu, eragile, ... Eskolari dagokio gai honetan aitzindaritzaz hartzea, etorkizuneko gurasoak, herritarrak eskola honetatik aterako baitira.

Aurrera pusuak eman dira: eskola mistoaren sorrera, eskolari buruzko hausnarketak, egin dira ikerketak, burutu dira era guztietako iniziatibak, aurrera eman dira hamaika saiakera. Lan eta ahalegin irakaskuntzaren bidez jendarte justuago eta berdintzaileagoa eraiki daitekeela sinisten duten askoren aldetik.

Asko gelditzen da egiteke. Izan ere, egungo eslolak, ez du bermatzen aukera berdintasunerako ikasketak. Curriculumetan, testu liburuetan emakumeen presentzia oso murrizta da edo ohiko rol tradizionalari atxikituta agertzen da. Ez da aintzat hartzen emakumeon aportazioa historian, zientzian, ekonomian ... Hizkuntza sexista erabiltzen da, espazioaren banaketan mutilek jarraitzen dute nagusiak izaten. Urrats asko falta dira emateko programazioetan, orientazioan, antolakuntzan, emozioen lanketan, ...

Sistema honen emaitzen azterketa egitea ere beharrezkoa da. Neskek zein mutilek jarraitzen dute ikasketak desberdinak hautatzen. Titulazioa atera ondoren lana aurkitzeko aukera gutxiago izaten dute neskek eta lan prekarioagoak lortzen dituzte. Horretaz gain, alarma gorria pizten duten beste zenbait datu ere badaude: gazteen artean ere ematen dira emakumeen kontrako jazarpen kasuak.

Hau guztia aldatzeko beharrezkoa da hezkidetzaz bultzatu eta suspertuko duen plangintza bat hezkuntza sistema osorako. Heziketa integrala pertsonaren aspektu guztiak kontuan hartuko dituen, non edukiak igortzeaz gain emozio eta afektuaren kudeaketa landuko den aurre egin ahal izateko eman diren eta etorriko diren aldaketei eta oraindik etorriko direnei. Besteak beste, maitasuna izan ez dadin tratatu txarrekin lotutako gaia.

Gure aldetik, martxoak 8 honetarako proposatzen dizuegu gure web orrian (eskubiko zutabean dagoen logoa) aurkituko dituzuen, maila desberdinetako unitate didaktiko bilduma bat. Maskukinitateak, Nesken eta mutilen arteko parekidetasuna aztergai, Denboraren erabilera, Emakumeak agerrarazten ditugu, Handitan izango naiz, ...

<http://www.labsindikatu.org/sectoreak/irakaskuntza/eskuma/ema>

<b>Arabari</b>	<b>Bizkaian</b>	<b>Gipuzkoan</b>	<b>Nafarroan</b>	<b>Iparaldean</b>
Fermin Lasuen, 13 Behea 01001 Gasteiz Telf.: 945 259 544 Faxa.: 945 258 039 <b>irakaskuntzaaraba@ labsindikatu.org</b>	Rekalde Zumarkalea, 62 48010 Bilbo Telf.: 944 706 900 Faxa.: 944 706 909 <b>irakaskuntzabizkaia@ labsindikatu.org</b>	San Bladi, 1 behea 20013 Donostia Telf.: 943 458 562 Faxa.: 943 472 709 <b>irakaskuntzagipuzkoa@ labsindikatu.org</b>	Martxelo Zelaieta, 75-2A 31001 Iruñea Telf.: 948 210 422 Faxa.: 948 221 276 <b>irakaskuntzanafarroa@ labsindikatu.org</b>	7 Coursic Karrika 64100 Baiona Telf.: 0559595020 Faxa.: 0559595021 <b>baiona@ labsindikatu.org</b>